



SANANDRESAK EIBARREN 2021 kartel lehiaketaren oinarriak

Eibarko Udaleko Kultura Batzordeak 2021 Sanandresetarako kartelaren lehiaketa deialdia egiten du honako oinarri hauek argitara emanez:

Derrigorrezko testua: SANANDRESAK EIBARREN.

Gainera deialdiaren urtea azaldu beharko da (2021).

Gaia: norberaren aukeran.

Kolorea: norberaren aukerakoa.

Neurriak: 70 x 50 zm.

Lanak aurkezteko formatuak:

- Euskarri gogor baten gainean.
- Edo formatu digitalizatu batean (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin).

Ez dira onartuko posta elektronikoz eta postaz jasotako lanak.

Lanak aurkezteko epea urriaren 1etik 19ra izango da (biak barne).

Lehiaketan izena emateko eta lanak aurkezteko bideak:

- **Elektronikoki:** lehiaketan izena emateko formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:

<https://formularioak.eibar.eus/eu/kartelaksanandresak>

Formulario elektronikoa betetzeko ez da inolako sinadura elektronikorik behar, ezta ere erabiltzaile eta pasahitzik.

Kartela formatu digitalean erantsi beharko da.

- **Presentzialki:** PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa. Kartela euskarri gogor baten gainean aurkeztu beharko da.
PEGORara, Herritarren zerbitzurako bulegora joateko, **beharrezkoa da aldeaz aurretiko hitzordua izatea. Hitzordua nola eskatu:**
 - Udal webgunearen bitartez: <https://hitzorduak.eibar.eus/pegora/eu>
 - Telefonoz: 940 70 84 00.

Kartelak lemapean aurkeztuko dira. Izena ematerako orduan (elektronikoki ala presentzialki PEGORAn), egileak ondorengo datuak erraztu beharko ditu:

- Egilearen izen-abizenak.
- Egilearen NAN, AIZ... (14 urtetik gorakoentzat derrigorrezkoa).
- Egilearen bizilekua.
- Egilearen telefonoa.
- Egilearen e-maila.
- Egilearen adina.
- Adin-tartea: 10 urte arte, 11 eta 14 urte bitartekoa, ala 15 urtetik gorakoa.
- Kartelaren lema.



Lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu, aurreko kartel-lehiaketetan (Aratosteak, Sanjuanak, Sanandresak) 5 aldiz edo gehiagotan sarituak izan badira.

Sariak:

Hauek dira kategoria bakoitzeko onenentzako sariak:

- **15 urtetik gorako pertsonak: 600 euro.**
- **11 eta 14 bitarteko pertsonak: sari berezia (dirurik ez).**
- **10 urte arteko pertsonak: sari berezia (dirurik ez).**

Lehiaketan irabazlerik ez egotea ere gerta liteke.

Epai-mahaiak urriaren 22an emango du ezagutzera bere erabakia eta atzeraezina izango da.

Epai-mahaikideak nortzuk diren erabakia ematen den egunean jakinaraziko da.

Epai-mahaiak, oinarri hauek irakurtzerakoan sor daitezkeen zalantzak bere kabuz irtenbideratzeko ahalmena du.

Kartel saritua Udalaren esku geratuko da. Udalak, kartela argitara emateko eskubidea bere gain hartzen du.

Saririk jaso ez duten originalak Euskara-Kultura Sailean har daitezke epai-mahaiak bildu eta hurrengo 30 egunen barruan.

Lehiaketan kartel originalak aurkezten dituenak, oinarri hauek diotena ontzat ematen du.

INFORMAZIOA:

EIBARKO UDALA
KULTURA ARLOA
PORTALEA - Bista Eder, 10. 20600 Eibar.

Telefona: 943 70 84 35.

E-maila: kultura@eibar.eus

Webgunea: www.eibar.eus